

BARAÑAIN / Zinegotzia liburuzain

Barañaingo liburutegian BERRIA eta ' Gara ' egunkariak ez erosteko hango Kultura zinegotziaren erabakia eta Nafarroako Liburutegi Zerbitzuaren baimena kritikatu zituzten atzo 168 liburuzainek.

Iñigo Astiz. Iruñea

Zazpi ziren urtarrilean, baina bost dira orain Barañainen (Nafarroa) liburutegi publikoan irakur daitezkeen egunkariak. BERRIA eta Gara egunkariak falta dira otsailaz geroztik, Pablo Gomez hango Kultura eta Gazteria zinegotziak (UPN) hala erabakita. 25 egun daramatzate, beraz, liburutegian bi egunkari horiek irakurri ezinik. Liburuzainek egin beharrean, zinegotziak egin zuen bereizketa erosi beharrekoak ziren egunkarien eta erosi beharrekoak ez ziren egunkarien artean. Fermin Guillorme Nafarroako Gobernuako Liburutegien Zerbitzuko zuzendariaren baimena jaso zuen, gainera, zinegotziak, eta horixe salatu dute liburuzainek; liburuzainei dagokiela hautu hori, eta ez zinegotziei. 168 liburuzainek sinatutako eta Guillomeri zuzendutako protesta idazkia aurkeztu zuten horretarako atzo Nafarroako Kultura Sailaren erregistroan.

Liburutegien hitzarmena desitxuratuz baimendu du bi egunkariak erosteari uzteko erabakia Guillormek. Hala dio Asuncion Maestrok, Nafarroako Liburuzainen Elkarteko zuzendariak, hitzarmen horren arabera liburuzainek baitute, izan ere, liburutegirako erosiko diren egunkari eta liburuen gainean erabakitze eskumena, eta ez zinegotziek, alkateak edo Gobernuak. Zentsura eta esku-hartzea da horregatik, Maestroren iritziz, bi egunkariak ez erosteko erabakia. Ez BERRIA eta Gara egunkariak direlako, ordea, egunkariak direnak direla ere gertatutakoa larria dela baitio Maestrok, eta aurrekari arriskutsu bat ezarri dela uste du. Erabaki honek ateak ireki dizkio edozein zinegotziri, alkateri zein koordinatzailei liburutegian zerk egon behar lukeen eta zerk ez erabakitze, eta oso ate arriskutsua da hori. Bi eskari egin dizkiote horregatik atzo aurkezturiko idazkian liburuzainek Guillormeri: lehena, Barañainen BERRIA eta Gara egunkariak erosteko debekua baliogabetzea, eta bigarrena, udalerri guztietako zinegotziei liburutegi publikoetako baliabide eta zerbitzuen kudeaketa zuzendaritza teknikoari dagokiola jakinaraztea.

Arrazoi ekonomikoak

Guillormek oraindik ez du erabakia baimentzeko arrazoirik eman. Jose Antonio Mendibe Barañaingo alkateak, ordea, arrazoi ekonomikoak aipatu ditu erabakia hartzeko. Azaldu duenez, gastuak murrizten ari dira liburutegian, eta horregatik erabaki dute BERRIA eta Gara erosteari uztea. Beste egunkarien harpidetza bikoitzak ere bertan behera utzi dituztela zehaztu du.

Maestrok azaldu duenez, halere, arazo ekonomiko horiek gorabehera,

liburutegiak erabaki beharko luke zer erosi eta zer ez. Liburuzainez gainera, liburutegiko erabiltzaileek erabaki behar dute zer erosi (desiderat-en bidez), eta, Maestrok dioenez, argi dago biek ala biek egin dutela BERRIA eta Gara egunkariak erosteko hautuaren alde. Neurriaren arabera, liburutegi guztiek ez dute egunkari guztiak eskuratzeko aukerarik, baina, Maestrok dioenez, ez da hori Barañaingo kasua. Hemengo liburutegiak, zazpi egunkari izan ditzake, eta zazpi izan behar ditu.

Egoerak Barañaingo arazo zehatza gainditzen duela ulertuta, izenik eman gabe hitz egin nahi izan dute bertako liburuzainek. Liburutegi publikoek gizartearen ispilu izan behar luketela uste dute, eta, diotenez, irizpide hori ezartzen dute zer egunkari erosi erabakitzeko ere. Horregatik erosten ditugu zazpi egunkariak. Haien ustetan, ez zinegotziak, ez eta liburuzainak ere ez dira nor, halere, liburutegiko erabiltzaileek zer irakurri beharko luketen aukeratzeko, eta horregatik uste dute egunkari guztiak eskuragarri jartzea dela liburutegira doazenei zer irakurri ez ezartzeko bidea.

Nafarroako Liburuzainen Elkarteko kideek azaldu dutenez, gaiari buruzko manifestu bat prestatuko dute. Guztiontzako liburutegi publiko baten alde, guztiok guztiok garenean izango du izenburua. BERRIAko zuzendaritzak, bestalde, bilera eskatu die Barañaingo Kultura zinegotziari eta Nafarroako Gobernuko Liburutegien Zerbitzuko zuzendariari, erabakiaren zergatiak jakiteko.

NORTASUN AGIRIA

168. Horiek dira atzo Iruñean aurkeztutako protesta idazkia sinatu duten liburuzainak.

Hitzarmena. Liburutegien hitzarmenaren arabera, liburuzainena da zer erosi erabakitzeko eskuduntza, eta ez zinegotzi edo alkateena.

Arrazoi ekonomikoak. Liburutegiaren gastu murrizketa aipatu du Barañaingo alkateak erabakia hartzeko arrazoitzat.